

2021/03/25

BIDEOKLIPAREN GRABAKETA

OPORREN BUELTAN ARABA EUSKARAZ KANTAREN BIDEOKLIPA GRABATUKO DUGU

Apirilaren 30ean Araba Euskaraz kantaren aurkezpen ekitaldia burutuko dugu eta horretarako kanta lagunduko duen bideoklipa grabatuko dugu oporren bueltako asteetan.

Ikastola komunitate osoarentzako erronka izango da. Hortaz, ikasle guztiei eskola ordutegian grabaketan parte hartzeko gonbidapena luzatuko diegu: apirilaren 14an Lehen Hezkuntzari, 15ean Haur Hezkuntzako 2. zikloari eta 16an Laudio Txikiri.

Bigarren Hezkuntzako ikasleei aipatutako 3 egunetan banatzea proposatuko zaie.

Hortaz, guztiok grabaketan parte hartzeko aholkuak prestatu ditugu:

KOREOGRAFIA LANTZEKO TUTORIALA

Kanta lagunduko duen koreografia prestatu dugu. Izan ere bideo tutorial bat helarazten dizuegu opor egunetan etxean prestatzen has zaitezten.

**koreografia
tutoriala** 

IRUDI BAIMENA

Bideoklipa sare sozialetan eta hedabideetan zabalduko denez gero, ezinbestekoa izango dugu grabaketan azalduko diren adin txikiko guztien irudi baimena eskuratzea.



Grabaketan parte hartzeko, ikasturte hasieran sare sozial eta hedabideetarako baimena eman ez zuten ikasleen familiek beharrezkoa izango dute baimen hori ematea.

Horretarako, familia horiei apirilaren 12an izenpetutako baimena banatuko zaie ikasleen bidez, hala baderitzote 13rako aldatuta itzuli dezaten.

ARABA EUSKARAZ KAMISETAK

Bideoklipetan parte hartuko dugun guztiok Araba Euskaraz kamiseta eraman beharko dugu jantzita. Kamisetak eskuratzeko, denda zabalik izango dugu martxoaren 26, 27, 29 eta 30ean eta apirilaren 8, 9, 10, 12 eta 13an. 17:00etatik 19:30era lan egunetan eta 11:00etatik 13:30era larunbatetan.